



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-05-01**

VIURTEA 1.422.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Plazaolaz gozatzeko aukera izango da igandean, Natur Bideen Egunean

**LEITZA** Aurten Leitzan ospatuko da, eta hainbat ekitaldi izango dira: pailazoak, ikus-entzunezkoak, luncha...

**IBILBIDEAK** Lau ibilbide antolatu dituzte: Leitza Iparrak, Leitza Hegoa, Uiziko tunelera eta Lekunberritik Leitzara >



L.T.

**EGOITZ ITURBE** ELA SINDIKATUAREN ORIA-GOIERRIKO ARDURADUNA

«Gure helburu nagusia langileak organizatzea da euren eskubideak hobetzeko»

**EKONOMIA** Oria-Goierriko ELAren arduradun berria da Egoitz Iturbe legazpiarra; «prebentzioa egunero egon behar da», dio >

## Zortzi orduko Ibilaldi Neurtua egingo dute igande honetan

**BERASTEGI** Basurde elkarteak antolatzen du, «Berastegi ezagutarazi eta ondo pasatzeko» >

**Agoteen lurretara bidaia antolatu dute maiatzaren 10erako**

**KULTURA** Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatu du Euskal Herrian Barrena egitarauaren baitan >

**Elizmendi auzoan etzi hasiko dira Santa Kruz festak**

**ASTEASU** Simonen jeitsierak iragarriko du jaien hasiera; bere igoerarekin amaituko dira igandean festak >

**malen**

Hernani kalea 8, Donostia

**elena miro**



**E Elkarrizketa****EGOITZ ITURBE** › ELA sindikatuaren Oria-Goierriko arduraduna

# «Euren eskubideak hobetzeko langileak organizatzea da gure helburu nagusia»

**Ekonomia** › Oria-Goierri eskualdeko arduradun berria da Egoitz Iturbe; «gazteak, emakumeak eta langileen eskubideak babestea» duela erronketako bat dio.

**INIGO TERRADILLOS**

Egoitz Iturbe (Legazpi, 1976) da ELA sindikatuaren Oria-Goierriko arduradun berria. Ramon Iratzuk utzitako lekua betetzera dator, beraz.

**Zein izan da ELA sindikatua zure ibilbidea?**

Orain dela 7 urte sartu nintzen. Tolosan hasi nintzen, Pyme bezala gauza txiki eta ertainen arduradun bezala. Bi urte egin nituen hemen, eta gero, Deba eskualdeko arduraduna izatera pasa nintzen. Orain, sindikatuak ulertu du ni berriro ere eskualdera bueltatzea, bertakoa naizelako. Oria-Goierri eskualdeko arduraduna naiz, Legazpitik Lasarte-Hernanira bitarte hartzen du eskualdeak.

**Gustura, berriz zure eskualdera bueltatu zarela?**

Orain bi eskualde ditudala esaten dut. Deban oso gustura egon naiz, eta hona bueltatzea beste etapa bat da niretzat. Gustura naiz.

**Zein helbururekin etorri zara?**

Talde lana sendotu behar dugula uste dut. Gipuzkoan prekaritate, ezagokortasun handia dagoela esan daiteke. Jende gazte eta emakumeengana hurbildu behar dugu, eta talde lanaren bitartez egoera txarrean dagoen jendearekin egon. Jende gazte, emakumeak eta langileen eskubideak babestea da gure erronka.

**Zein da gure eskualdeko egoera?**

Adibide bat jarriko dut. Zumarragan, Faustino Orbegozon 3 hilabete daramatzagu greban. Prekaritatea salatzen dugu. Zumarragako udaltxea eta Diputazioa daude artean, eta beraien artean egindako trikimailluen ostean, langileak



I.T.

urtean 6.000 euro galtzen dituzte eta ordu gehiago egin behar dute lan. Zergatik? Bi agintari politikok, EAJ eta PSEkoak hala nahi izan dutelako. Guk lehen zuten egoera mantentzea eskatzen dugu. Pribatizatu egin dute, baina guk eskubide berdinak izatea eskatzen dugu, eta ez egoera okertzea. Diskriminazio handia dago emakume gazteetan batez ere, eta ez diogu utziko inori horrelako jarrera izaten.

**Horren aurrean zer egin daiteke?**

Langileen ondo ondoan egon behar dugu. Beraien eskubideak babesteko edozer gauza egin behar da. Greba bide bat da, negoziazioa ez dugu ukatzen, negoziatu nahi dugu, baina guk esaten duguna da, ez kentzea daukaguna.

**Laneko Seguratasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen apirila 28an. Zein da zuen hausnarketa gaiaren inguruan?**

Oso oso gaizki dagoela egoera uste dugu. Lan egiteko eskubidea dugun heinean, etxera bueltatzeko ere badugu. Gaur egungo enpresetan seguratasuna ez da lehentasuna. Arrisku handiak jasaten ditugu langileok. Hau politikoei badakite, uste dute prebentzioa kostu bat

dela eta ez inbertsio bat. Guk uste dugu egungo egoera oso larria dela eta interes politikoa ez dela segurtasuna salatzen dugu. Inspezioak ez daude, makinak gaizki egin arren langileek lan egin behar dute, eta ez baduzu egiten santziak izan ditzakezu, segurtasun planak ez daude... Gero, noski, enpresariak ez dute ezer argumentatzeko edozer gertatuz gero, izan ere,

**«Lan egiteko eskubidea dugun heinean, etxera bueltatzeko ere badugu; arriskua jasaten dugu»**

langileak etxera bueltatzeko arduradun nagusia enpresaria da. Urtetik urtera aldatzen al da egoera hori?

Gaur egungo lan mundua prekarizatzen doan heinean, soldata bazuak, azpikontratak, kontrolak gutxitzen doazen heinean, lan istripuak egoteko arriskuak ere handitzen doaz. Horregatik, prebentzioa eguneroko egin behar dela esaten dugu.

**Ezin esan, beraz, egoera onean gaudenik.**

Patronala gustura dago, eta Administrazioak patronalari lagundu egiten dio. Langileen eskubideak lege estatalen, lokalen bitartez gutxitzen ari dira. Prekaritatea ari dira sufrizten langileek, eta gu hori hobetzen saiatuko gara. Jende asko dago oso egoera txarrean. Gure helburu nagusietako bat langileak antolatzea da euren eskubideak hobetzeko. Horretan ari gara.

**Gaur maiatzak 1 da, Langileen Nazioarteko Eguna. Zein da zuen leloa, zer aldarrikatuko duzue?**

Bilbon egingo dugu ekitaldi nagusia gaur, *Euskal Herri soziala indartzeko langileak martxan* lelopean. Hitzaldia izango da, manifestazioa eta gero bazkaria egingo dugu. Guk zera esaten dugu, agintari politikoei ez dutela langileentzat gobernatzen. Dirua badago, baina Gobernuak ez du langileengan inbertsiorik egiten. Hau ez da guk nahi dugun Euskal Herria. Langileen eskubideak bermatzen dituen Euskal Herria nahi dugu.

**Etorkizuna nola ikusten duzu?**

Agintari politikoei euren jarrera aldatu behar dute. Eusko Jaurlaritzak duen superabitarekin gauza asko egin litezke, etxebizitza arloan, langabezia dagoen jendearekin... baina hori ez baino, pribatizazioa ari dira bultzatzen (Osakidetza esaterako), AHTn ari dira inbertitzen... EAJk norengan inbertitzen du? Langileengan behintzat ez.

**AHT aipatu duzu. Zein da zuen jarreraren proiektuaren aurrean?**

Gu tren sozialaren aldekoak gara. Abiadura Handiko Trenea inposatu egin nahi izan digute, erabaki elitista bat izan da. Galdera hau da guk lutzatzen duguna, norentzat da tren hau?

**Nolako harremana duzue beste sindikatuekin?**

Gure eskualdean LAB eta ELAren artean dagoen harremana ez da txarra; une hobeak izan ditugu, bai, baina hobeak izateko esperantza erekin gaudu.

## Gaurtik astelehenera arte film aukera handia izango da Leidor aretoan

**Zinema** › Lau film izango dira ikusgai; igandera arte hiru saio izango dira egunean, eta astelehenera, berriz, saio bat.

**ERREDAKZIOA**

Askorentzat gaur asteburu luzea hasiko da, eta askok eta askok baliatuko dituzte opor egun hauek kanpora joateko. Beste asko, berriz, herrian bertan geratuko dira irteerak egin, edota besterik gabe atsedean hartuz. Hala, herrian geratzen direnek Leidor aretoan zinema aukera anitza izango dute egun hauetarako, gaur hasi eta astelehenera arte, hain zuzen.

Lau film izango dira ikusgai: Robert Pulcini eta Shari Springer Berman-en *Diario de una niñera* komedia filma; Peter Hedges zuzendariaren *Como la vida misma* komedia pelikula; James Gray zuzendariaren *La noche es nuestra* generokoa; eta Mark Waters zuzendariaren *Cronicas de Spiderwick* abenturazko filma.

Aukera badago beraz, egun hauetan zinemara joateko adin guztiei zuzendutako film hauek ikustera.

**›› EGITARAUA****Maiatzak 1, gaur**

- 17:00. *Diario de una niñera.*
- 19:30. *Como la vida misma.*
- 22:00. *La noche es nuestra.*

**Maiatzak 2, bihar**

- 17:00. *Cronicas de Spiderwick.*
- 19:30. *La noche es nuestra.*
- 22:30. *Como la vida misma.*

**Maiatzak 3, etzi**

- 17:00. *Diario de una niñera.*
- 19:30. *Como la vida misma.*
- 22:30. *La noche es nuestra.*

**Maiatzak 4, igandea**

- 17:00. *Cronicas de Spiderwick.*
- 19:30. *La noche es nuestra.*
- 22:30. *Como la vida misma.*

**Maiatzak 5, astelehena**

- 20:30. *La noche es nuestra.*

**H Hilberriak****MARI KARMEN ARAMENDI ALBIZU**

Ez agurrik  
Ez adiorik  
Gero arte baizik.

Zure lagunak

ZARAUTZ  
2008ko maiatzaren 1a

**JOXE MUNDUATE AUZMENDI**

(Modesta Apalategiren alarguna)

Atzo hil zen, 83 urte zituela, Elizkoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goianbe-  

Bere anima zuzendaria: Juan M<sup>o</sup> Olaetxea; seme-alabak: Maixa eta Lander Imaz, Joxe; bilobak: Uxue eta Leire; anai-arrebak: Maria (†) eta Nikomedes Begiristain (†), Joxepa (†) eta Joxe Antonio Agirre, Joxe M<sup>o</sup> (†), Patxi (†), Sebastian (†) eta Jacinto (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, izaba, lehengusak eta gainerako ahaldiek. Hirien animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko SEIETAN, ANDRE MARI BIRJINAREN IKUSTALDIA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Aiarre-berri baserria.  
Oharra: Gorpua Beasaineko Goierri Beilatokian egongo da.



ATAUN  
2008ko  
maiatzaren 1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## Duatloi zirkuitoari amaiera eman diote TTT-Iparkalekoek

**Triatloia** » Hurrengo hitzordua Senpereko izango dute eskualdekoek; denboraldiko lehen triatloia izango da.



Sarasola, bizikletakoan bikain. HITZA

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Triatloi Taldea-Iparkalekoek Arbizun eman zioten amaiera duatloi zirkuitoari, nahiz eta oraindik bi proba falta diren txapelketa amaitzeko.

Bero sargoria izan zuten TTT-Iparkal-ekoek baina hala ere bizikletako saioan burututako denborak ikaragarriak izan ziren. Honen ondorioz, taldekako emaitzak ikusita, 11. sailkatzea lortu zuen. Denera 22 taldek hartu zuten parte norgehiagokan.

Aipatutako probak entrenamendu gisa hartu dituzte triatloiariek. Izan eren, euren helburu nagusiak, hilaren 25an hasiko den Euskadiko Triatloi Zirkuituan jarriak dituzte. Hala, eta euren sasoi puntua nolakoak den ikusi asmoz,

asteburu honetan Senperera joango dira, *Le triathlon de la cote basque*, urteko lehen triatloira.

Ibilbidea distantzia olinpikoa (1500-40-10) burutu beharko dute. Bertan lortutako emaitzen arabera baloratuko dituzte hurrengo asteetako entrenamenduak nola burutu sasoi puntua egokia lortzeko. Beraz, hitzordua garrantzitsua izango dute igande honetako, eskualdekoek.

## Villabonakoak ongi aritu dira eskolartekoetan



Villabonako jokalaririk hirugarren geratu ziren txapelketan. HITZA

### Mahai-tenisa

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan hirugarren geratu ziren alebiren mailan, eskualdekoak.

### ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan, Oiarzungo Elorsoro kiroldegian Mahai teniseko eskolarteko topaketak jokatu ziren. Denera 96 lagunek hartu zuten parte, bakarkako txapelketan, alebiren eta infantilen mailan aritu ziren hauek. Taldeka berriaz, 46 osatu ziren.

Eskualdeko parte-hartzaileei

dagokionez, Villabonako Fleming ikastetxeak izan ziren bakarrak. Alebiren mailan hiru gaztetxo lehiatu ziren eta taldekakoan, brontzeko domina eskuratu zuten. Banakakoan ere domina bat etxeratzea lortu zuten.

Ainhua Atxaga, Nerea Inurriria eta Elixabet Mosqueira taldekako txapelketan hasi ziren jokatzeko lehendabizi, ondorengo partida gehienak ere irabaziz joan zirelarik.

Beraz, jardunaldi interesgarria, eta aldi berean, ikusgarria izan zen asteburukoak. Jende ugari bildu zen, kiroldegiko aretoetako batean zeuden 20 mahaietan zer gertatzen zen ikusteko.



Ekimenaren aurkezpenean, antolatzaileekin batera izan ziren eskualdeko hainbat Udal ordezkari, euskara teknikari. E. E.

## Kontseiluaren 10 urtetako lana agertzeko erakusketa ibiltaria hemen da

**Kultura** » Ekimen honez gain, 'Euskaraz bai' astea ospatuko da hilaren 5etik aurrera eskualdeko hainbat herritan.

### ERREDAKZIOA

Kontseiluaren erakusketa ibiltariaren hurrengo gurekua Tolosa izango da. Euskararen gizarte erakundearen 10. urtemuga ospatzeko antolatutako ekintzen artean kokatzen da ekimen hau. Honez gain, hilaren 5etik 10era, *Euskaraz bai* astea ospatuko da eskualdean, ekitaldi ugari izango direlarik honen baitan.

### Erakusketa Kultur Etxean

Kontseiluaren erakusketa ibiltaria Kultur Etxean egongo da kokatuta hilaren 5etik 8ra. Panelek, argazkiak, ordenagailu bidezko aurkezpenek eta ikus-entzunezkoek osatzen dute hau. Baigorri eman zioten hasiera ekimenari. Orain, aipatu bezala, Tolosan izango da, eta ondoren Santurtzira bideratuko dute.

Izan ere Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde ezberdinak zeharkatuko ditu. Antolatzaileek ezaugarri hau kontutan hartu dute erakusketaren ibilbidea osatzeko garaian. Inguruko txoko guztiara iristea nahi baitzuten. Erakusketa honekin Kontseiluak 10 urte hauetan egin duten lana erakutsi nahi diete herritarrei.

### 'Euskaraz bai' ekimena

Erakusketarekin batera, *Euskaraz bizi* astea antolatuko dute herri bakoitzen, baita Tolosan ere. Dena den, hemengo kasuan, ekimena eskualde osora zabaldu nahi izan

### » EUSKARAZ BAI ASTEA

#### Maiatzak 5, astelehena

■ **Hitzaldia.** Tolosako Udal Batzar aretoan, Kontseiluko kide den Urko Aierberen eskutik hitzaldia izango da.

#### Maiatzak 6, asteartea

■ **Atxikimendu bilketa eta bideo grabaketa.** Tolosako Kultur Etxean egingo da.

#### Maiatzak 9, ostirala

■ **Dantza emanaldia.** Ostrukaren

dute, eta inguruko hainbat herritan ere izango da zer ikusi eta egunik. Honenbestez, euskararen inguruko hitzaldiak, antzerkiak, kontzertuak, kirol-jarduerak, grafiti erakusketak... izango dira.

Bestalde, *Euskaraz bai* adierazpenaren edukia zabalduko dutela iragarri dute Kontseiluko ordezkariak. Horretarako, herritarren atxikimenduak bilduko dituzte. Hau egiteko, «euskaraz bai» esan beharko dute interesa duten herritarrek.

*zuloa* dantza garaikidea emanaldia izango da Gurea zinemaren, Ertza taldearen eskutik.

#### Maiatzak 10, larunbata

■ **Berto antzerkia.** 1,2,3 *Inaxito* izeneko bertso antzerkia izango da Irurako San Migel plazan. Deabruak Teilatuetan talde tolosarraren kontzertua izango da Anoetako Gaztetxean. Egun berean, Zizurkilgo Intxaur frontoian Ken zazpi izango da.

Erakusketaren testuinguruan euskaraz bai adierazpenari babesa emateko aukera izango da, halaber, webgunean ere edozein herritarrek egin dezake gauza bera moduerrazean, [www.kontseilua.org/euskarazbai](http://www.kontseilua.org/euskarazbai) helbide elektronikoa.

Ekimen hau ez guztiez gain, erakusketaren aurkezpena baliatu dute 10. urtemugako ekitaldi nagusiaren data eta lekua iragartzeko. Hau BECen izango da abenduaren 13an.

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Igaratzatik mirenarako bidean argazki kamera bat galdu zen igandean. Canon Ixus Go. Aurkituz gero telefono zenbakia: 660 57 91 44.

■ **Txakurkumea.** Border Collie txakurkume bat galdu zaigu goizean Ernioko bidean. Lepoko gorria darama. Zerbaiten berri izanez gero, deitu 656 79 29 63 telefonora (Jon).

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.



## Laburrak

### Txalaparta ikastaroa egiteko aukera

**LARRAUL** • Txalaparta ikastaroa antolatatu dute Aiztondo Mankomunitetik. Maiatzaren 12an hasi eta ekainaren 4ra arte iraungo du. As-telehenetan eta asteazkenetan izango da, 19:30etik 20:30era, Kultur Etxean. Prezioa 20 eurokoa izango da eta izena emateko epea maiatzaren 7ra arte da. Horretarako mankomunitateko bulegoetan egin behar da, 943 69 39 30 zenbakian.

### Alkartasunak irteera berri bat antolatu du

**ANOETA** • Alkartasuna Biltokiak irteera antolatu du ekainaren 11rako. Portugaleteko zubi eskia bisitatu dute. Ondoren, Getxoko portura joango dira eta denbora izanez gero, Guggenheim museoa bisitatu dute. Bazkaria Lur Gatika jabetxean egingo dute eta ondoren dantzaldia izango dute. Alkartasuneko kideek 27 euro ordaindu beharko dute eta kideak ez direnek 30 euro. Izen-ematea Biltokian bertan egin daiteke, 18:00etatik 20:00etara.

### Xurdiaren emanaldiko argazkiak Interneten

**KULTURA** • Xurdiak Zizurkilgo Antzerki Astearen egindako emanaldiaren argazkiak ikusgai daude Interneten, [www.xurdi.com](http://www.xurdi.com) helbidean.

### Sekulako garaipena lortu du Transportes Lakunzak

**VILLABONA** • Transportes Lakunzak sekulako garaipena lortu zuen aurreko larunbatean. 17-0 irabazi zuen Goierriko taldearen aurka. Esan beharra dago goierriarrek leiontatu asko zituztela eta jubenilekin jokatu behar izan zutela. Billa-bonatarrek lehenengoaren aurka jokatu balute bezala hartu zuten eta horregatik iritsi ziren markagailu horretara. Atsedendaldirako 10-0 irabazten zihozazen dagoeneko. Hurrengo norgehiagoka larunbatean izan beharrean ostiralean izango dute. Euskal Sofa-UPV donostiarren aurka jokatu dute In-txaurrendoko kiroldegian, 21:15ean.

## Orixekoak eta Laskorainekoak, irabazle

**VILLABONA** • Kutxak antolatuta eta Xiba elkarteak sustatuta, atzo egin zuten Villabonan euskal jolasen azken jaialdia DBH1 eta DBH2 mailetako ikasleekin. Guztira 400 gazte izan ziren bertan. Tolosarrak izan ziren irabazleak bi mailetan. DBH1ean Orixe Institutuak lortu zuen garaipena

(goian, ezkerrean, maila honetako lehenengo hiruren argazkia). DBH2koen artean, Laskorain Ikastolak irabazi zuen (goian, eskubian, hiru lehenen argazkiak). Giro alaietan egin zituzten probak eta dantzarako ere aukera izan zuten trikitilarien doinuekin. I.GARCIA

## Asteburuan Santa Kruz jaiak Elizmendingin

**Asteasu** » Etzi eta igandean izango dira ekitaldiak, auzokideen eta Festa Batzordearen artean antolatuta.

### ERREDAKZIOA

Asteasuko Elizmendingin auzoan Santa Kruz jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Asteasuko Udaleko Festa Batzordearen eta Elizmendingi auzokideen artean prestatu dute egitaraua. Azken urteetan bezala, Simonek protagonismo berezia

### » EGITARAUA

#### Maiatzak 3, etzi

- **11:00.** Duatloia.
- **15:30.** Mus txapelketa herrikoia.
- **16:30.** Txupinazoa eta Simonen jeitsiera. Ondoren, haur jolasak.
- **19:00.** Potxin eta Patxin pailazoaren emaldia.
- **20:00.** Meza Santa Kruz ermitan.
- **20:30.** Afarria Erretore etxean.

izango du, jaiari hasiera eta amaiera emateko.

Heldu eta haurrei zuzendutako egitaraua prestatu dute. Duatloia,

■ **23:00.** Erromeria Astiazaran anaiak eta Leirerekin. Goizaldera txokolatada.

#### Maiatzak 4, igandea

- **11:15.** Meza Santa Kruz ermitan. Ondoren hamaiketakoa eta gero Elizmendingi heldu eta gazteen arteko joko olinpikoak izango dira,

mus txapelketa herrikoia, meza, afari herrikoia, haurrentzako jolasak eta pailazoaren emaldia izango dute larunbatean. Igandean,

Laja eta Landakanda trikitilariak alaituta.

- **17:00.** Asto lasterketa, herri kirolak eta sokamuturra (zezen txikiak eta poneyak). Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak.
- **21:00.** Simonen igoera. Ondoren Laja eta Landakandarekin erromeria.

meza, hamaiketakoa, auzokideen arteko jokoak, asto lasterketa, herri kirolak, sokamuturrak eta Laja eta Landakandarekin erromeria.



**Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa**  
Batxilergoko Irakasgaien Eskaintza Osoa

**BATXILERGOAK**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

**943 65 13 87**  
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net [www.orixe.net](http://www.orixe.net)

Aurrematrikula: Maiatzaren 5tik 9ra





**Harpidedunentzat**  
**%25**  
merkeago

**hitza**  
elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.









Berastegitik 07:00etan irtengo dira mendizaleak, inguruko larre eta basoetan barrena Leitzaran ezagutzuz. JOXEMI SAIZAR

## Zortzi orduko Ibilbide Neurtua igande honetan

**Berastegi** » Basurde elkarteak izena emateko hiru aukera jarri ditu eta 5 euroko kostua du inskripzioak.

### ASIER IMAZ

Inguruko larre eta basoetatik Leitzaran ezagutzuz Berastegiko XVI. Ibilbide Neurtua egingo da igande honetan.

Basurde Elkarteak «kirolaren praktika bultzatzeko, Berastegi inguruko kultura ezagutzera emateko eta egun bat ondo pasatzeko laguntzeko asmoarekin» antolatatu du mendi martxa.

### Ibilbidea

Mendizaleak Berastegiko plazatik 07:00etan irtengo dira Urepelera. Hemendik Irumugarrieta, Mandoegi, Baratzazarreta, Belen tune-la eta Ipulñño pasa ondoren San

Lorentzora helduko dira, ostera Berastegira itzultzeko.

Itzulia gutxienez 6 ordu eta erdikoa izango dela aurreikusitako antolatzaileek, gehienez berriz 8 ordukoa. Mendi martxa Gipuzkoa eta Nafarroan barnerako da.

Ibilaldian zehar 5 kontrol-puntu egongo direla azaldu dute Basurde elkarteak, partaideek puntu bakoitzetik pasa beharko dute. Kontrol gune hauetaz gain, 3 zerbitzu eremu ezarriko dituzte;

osasun zaintza, ura, salda, laranjak eta abar banatuko dituztelarik gune hauetan.

### Izena emateko hiru aukera

Basurde Elkarteak izena emateko hiru aukera jarri ditu: e-mail bidez, telefonoz edo irteerako gunean. Kostua berriz 5 eurokoa izango da.

E-mail ez izena eman nahi duenak basurde@komunikazioa.org helbidera igorri beharko ditu ondorengo datuak: izena eta 2 abizenak, urteak, herria, probintzia eta federatua den ala ez. Izen-ematea e-mail ez egiten dutenek ordaindutakoaren agiria mezuarekin batera bidali beharko diote antolatzaileei, aurrez Kutxan eta Basurde Elkartearen izenean inskripzioarako kuotaren diru sarrera 2101 0031 32 0001972355 zenbakian egin dela jakinarazteko.

Telefonoz izena eman nahi dutenek 630 80 60 80 zenbakira deitu beharko dute. Azken aukera berriz, maiatzaren 4ean, igandean, irteera puntuan egongo da.

### Beste datu batzuk

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ez dira egingo «sor edo gerta daitezkeen istripuen edo-ta kalteen erantzule». Horretaz gain, partaide bakoitzak sortutako ondakinak, «norberak eraman» beharko dituela jakinarazi dute.

Berastegiko XVI. Ibilbide Neurturen parte hartzen duten guztiei diploma oroigarri bana oparituko zaie, eta ibilaldiaren bukaeran kirol produktua eta janariak banatuko dira zozketa bidez.

## Agoteen lurretara bidai

**Gizartea** » Euskal Herrian Barrena egitarauaren barnean irteera ugari antolatzen dituzte Euskal Herria ezagutzeko.

### ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen Euskal Herrian Barrena egitarauaren barruan, martxan jarri dute bidai edo txango monografikoak egiteko aukera, egun bateko txangoa, alegia.

Izena emateko epea zabalik dagoela azaldu dute Manuel Larramendi Kultur Bazkonako kideek eta antolatzaileek.

### Agoteen lurretara

Bigarren irteera datorren maiatzaren 10an izango da, larunbatean, eta parte hartzen dutenek Goi eta Behe Nafarroako txoko eder eta erakargarriak ezagutzeko aukera izango dute.

Txango honi Agoteen Lurretan eman diote antolatzaileek izena

eta horren bitartez Baztan eta Al-dudeetako inguruak, Santxotena eskultorearen museoa eta beste hainbat leku ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

Izena ematen dutenek txangoari goizeko bederatzia aldera emango diote hasiera eta iluntzeko zortzietarako etxean izango dira berriro.

### «10-80 urteko euskaldunak»

Iosu Zumeta egitarauaren arduradunak adierazi digunez, txango monografiko hauetan «10 eta 80 urte bitarteko euskaldunek har dezakete parte eta eguerdiko bazkariari dagokionez bi aukera daude: norberak bere bazkaria eramatea eta bere kontura bazkaltzea, edota antolatzaileek hautaturiko ostaturaren batean egitea otordua».

Aukera bakoitzaren arabera, bidaiaren kostua ere desberdina izango da. Zumetak azaldu duenez, «lehenengo aukera egiten dutenek 20 euro inguru ordainduko dute bidai eta bisitak egiteagatik, eta bigarren aukerakoek 30 euro inguru».

### Euskal Herria ezagutzeko

Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko eta aisialdia euskalduntzeko xedez sorturiko Euskal Herrian Barrena egitasmoaren barruan 2008an sei txango edo irteera monografiko antolatzen ditu Larramendi Bazkunak 18 eta 80 urte bitartekoentzat, eta asteburu osoko beste zortzi txango 18 eta 30 urte bitartekoentzat.

### Izen-ematea

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero 943 69 64 50 zenbakira dei daiteke (Iosu) edo txangoak@topagunea.com helbide elektronikora idatzi.

Izen-emate epea txango bakoitzaren burutu beharreko data baino astebete lehenagora arte luzatuko da. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eskuorriak eman ditu argitaratu, aurten antolatzen asmo duen eskaintza guztiaren berri emanez.

Eskuorriak, Larramendi Bazkunean bertan jaso ahal izateaz gain, Kultur Etxean eta ohiko informazio-guneetan jaso litezke.

## Emaitza txarrei amaiera eman nahian irtengo da Patxi Zeberio gaur Hernanin

### A. IMAZ

Erremonte jaialdia ospatuko da gaur Hernanin (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan. Bertan eskualdeko bi pilotarik jokatuko dute elkarren aurka, Zeberio II.ak eta Altuna II.ak.

Galarretakoa jaialdia 16:00etan hasiko da eta lau partiduz osatua egongo da. Eskualdeko bi pilotarien partida 40 tantura jokatuko da eta jaialdiko bigarrena izango da.

### Zeberio II.aren aukera

Apirilaren 6. partida galdu dituen Patxi Zeberio, denak Ezkuraren aurka. Oraingo honetan Ezkurak ez duenez jokatzeko, emaitza txarrei amaiera emateko aukera izango du Elduingo pilotariak. Horretarako Eizaguirre izango du lagun-tzaile bezala. Altuna II.ak berriz Lizaso izango du bikote gaur jokatuko den partiduan.

## Laburrak

### Festa Batzordearen bilkura maiatzaren 6ean

**IBARRA** » Udal Kultura eta Gazteria batzordeak, San Bartolome jaiaren antolaketa-rekin jarraitu asmoz, maiatzaren 6ean, asteartean, 19:30ean Festa Batzordearen bilkura egingo du Udal Bilkura Aretoan. Parte hartzeri gonbidatu eta animatu nahi izan ditu herritar guztiak.

### San Joan jaiak antolatzeko bilera maiatzaren 6ean

**BELAUNTA** » San Joan jaiak antolatzeko bilera egingo dute herriko Kultur Etxean maiatzaren 6ean, asteartean, 20:00etan. Belauntzarrei bilera arger daitezkeen eskatu die Udalak, euren proposamenak aurkeztu eta aztertzeko.

### Errioxako upategietara irteera maiatzaren 10ean

**BELAUNTA** » Kultur Etxeak Errioxako upategiak ezagutzeko irteera antolatzen du maiatzaren 10ean. Izena ematea 28 euro kostatuko da eta udal-etxean edo Tabernan eman beharko da izena goizez. Kultur Etxean berriz arratsaldean eman daiteke.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulato: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalteingoa:** 943 675858

**Tolgari:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Plazaolaz gozatzeko, Natur Bideen Eguna igandean Leitzan

**Aisia** » Lau ibilbidez gain, hainbat ekitaldi antolatu dituzte plazan eta herriko garbilekuan, Natur Bideen Eguna ospatzeko.

## NAIARA GARZIA

Atzo igandean ospatuko den Natur Bideen Eguna dela eta, prentsaurrekoa eskaini zuten Yolanda de Carlosek, Plazaola Partzuergo Turistikoko kudeatzaileak eta Xabier Zabalo, Leitzako alkateak, izan ere, aurten Leitzan ospatuko da. Festa hau estatu mailan ospatzen da eta natur bideen promozioa eta trenbide zaharren bideak berreskuratzea du helburu.

Urtero bezala, Leitzan bertan hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina natur bidea protagonista denez, zenbait ibilaldi ere antolatu dituzte.

## Ibilaldiak

Iganderako 4 ibilaldi antolatu dituzte. Lehenengoak, Leiza Iparra izenekoak, 10 kilometro ditu eta Leitzako geltokitik Gipuzkoako

mugaraino joan-etorria egingen dute hau aukeratzten dutenek (3 tunel zeharkatzen dira).

Leitza Hegoa izenekoak luzexea-goa da, 14 kilometro baititu. Geltokitik abiatu eta Uitzira joan-etorria egingen dute, eta kasu honetan 10 tunel zeharkatu behar dira.

Hirugarren ibilbidea aukeratzten dutenek Leitzako plazatik abiatu eta Uitziko tuneleraino joan-etorria egingen dute. Azkenik, nahi duenak ere Lekunberritik Leitzaraino joateko aukera izanen du laugarren ibilbidean, 14 kilometrotako ibilbidea izanen delarik.

## Uitziko Tunela

Uitziko tunela aurten ez dute argizatuko Natur Bideen Egunerako. Yolanda de Carlosek azaldu duenez, «aurten jada konponketan egiten hasiko dira, eta hori dela eta egun batetarako soilik ez piztea erabaki dugu». Izan ere, Nafarroako Kutxan lehengo urtean 1.000 pertsona baino gehiagok proiektu honen alde egin zuten, eta aurten ere jende askok gauza bera egin duela dio de Carlosek. Egindako ikerketa baten arabera,



Xabier Zabalo alkatea eta Yolanda de Carlos partzuergoko kudeatzailea. N.G.

1.200.000 euro behar dira tunela berritzeko. Argizatua ez egon arren, marra txuriz beste bide bat markatu dute. Saihesbide honek 200 metroko desnibela duenez antolatzailek ez dute zati hau txirrituluz egitea gomendatzen.

Leitzako Plazaola Geltokian (09:00etatik 10:30era) eta herriko plazan (09:00etatik aurrera) informazio guneak egonen dira. Bertan ibilbideen inguruko informazioa emanen dute, parte-hartzaileen izenak hartuko dituzte eta hauei

## » EGITARAUA

- **12:00etan.** Haurrentzako pailazoak eta globoflexia.
- **13:00etan.** Kontzertua, *Adaggio* taldearen eskutik.
- **12:00etatik 12:30era / 13:00etatik 13:30era.** Ikusentzuzko emanaldiak, garbilekuan.
- **12:00etatik aurrera.** Luntxa plazan.

opari bat emanen zaie. Ondoren, eguerdi aldera sariak zozketatuko dira.

## Egitarau oparoa

Urtero bezala, egitarau oparoa antolatu dute ibilaldiez gain. 12:00etan haurrentzako pailazoak izanen dira herriko plazan eta globoflexia, 13:00etan *Adaggio* laukoak emanaldi eskainiko du, 12:00etatik 12:30era, eta 13:00etatik 13:30era herriko plaza ondoan dagoen garbilekuan ikus-entzuzko 2 emanaldi eskainiko dituzte. «Garbilekua moldatu egin dugu», dio Zabalo. «Hemendik aurrera erabiltzeko espazio bat bezala planteatu dugu. Zer erabilera eman pentsatzen ari gara, balio handiko leku bat baita». 12:00etatik aurrera luntxa izanen da plazan, eta otartekoak eta edariak banatuko zaizkie izena eman duten parte-hartzaileei.

Natur Bideen Eguna igandean izan arren, Plazaolan egunero, eguraldi ona egiten duenean bereziki, jende asko ibiltzen da oinez eta herritarrek beraien ibilaldiak egiteko ibilbiderik aukeratuena izan ohi da.

## S Soka motzean

«Txoriak eta landareak ikaragarri gustatzen zaizkit»

## LAZARO ZABALA

Udal langilea

## N. GARZIA

**Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?**

Orokorrean dena gustatzen zait, baina lorezaintza dut gustuko.

**Eta gutxien?**

Askotan ez dizutela lana bukatzen uzten, beti ateratzen baitira gauza berriak.

**Konponketetan lan asko izaten duzue, beraz?**

Bai, norbera nolakoa den ere asko esan nahi du, ni estua naiz eta gauzak amaitu gabe uztea ez zait gustatzen.

**Irakurri duzun azken liburua?**

Ez dut denbora gehiegi izaten, baina eskolatik umeentzako ipuinak bidaltzen dituzte umeek irakurtzeko ohitura har dezaten eta haiekin irakurtzen ditut.

**Film bat?**

*El príncipe de Zaramunda.*

**Abesle bat?**

Bruce Springsteen.

**Urtaro bat?**

Udazkena, hego haizearekin gauak epelagoak izaten dira.

**Oporretarako leku bat?**

Isla Margarita, Venezuelan. Ezkondutakoan izan ginenean.

**Denbora librean zer egiten duzu?**

Txoriak eta landareak ikaragarri gustatzen zaizkit.



N. GARZIA

## Langileek Photoshop ikasteko aukera, zintzilik


## N. GARZIA

Oraindik Cederna-Garalurrek eta beste zenbait elkarte antolatu zituzten langileentzako ikastaroetako batean izena emateko epea zabalik dago, Photoshop-ekoan, alegia. Elkarte hauek beste 2 ikastaro ere antolatu zituzten, baina bai bata bai bestea bertan behera gelditu ziren behar adina jendek izena eman ez zuelako.

Elena Irigoien Cederna-Garalu-

rreko garapen teknikariak azaldu duenez, «Photosop-eko ikastaroa ateratzeko jende gutxi falta da», hau da, beste zenbait langilek izena eman ez gero ikastaroa aurrera aterako litzateke, eta bestela, bertan behera geldituko da hau ere.

Ikastaroa astelehenean hasiko da, dohainik da eta astelehenetik ostiralera emanen dute institutuan. Izena emateko 948 62 51 22 zenbakira deitu behar da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





17°  
10°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 20°  
HOTZENA 14°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Anoeta.** Koadrilen Eguneko bazkaria eta afaria maiatzaren 17an egingo da frontoian. Izen-ematea, Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5 eurotan.
- **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobus antolatuta du. Izena Udal bulegoetan eman behar da. 6 euro balio du.
- **Tolosa.** Apirila Gorria saioak bukatzeko, arratsaldetik aurrera festa izango da Sanblaspeko Gazte Asanbladaren lokalean: 18:00etan Lasarteko Desperbio taldea ariko da zuzenean.

### Erakusketak

- **Tolosa.** Artea Oinez 08 erakusketak Arburu Jauregian Nafarroa Oinez 08k antolatuta.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakuntzak antolatuta eskualdeko Eskola Txikien VI. Kirol Topaketak ospatu ziren atzo, Berazubini; harremanak bultzatzea eta kirol praktika sustatzea da helburua

# Harremanak estutuz kirolarekin



Pisu jaurtiketan, esku pilotan, erreleboetan eta sokatiran aritu ziren, besteak beste, gaztetxoak. ESTI EZEIZA

### ESTI EZEIZA

**T**olosaldea 28 herrik osatzen dute, eta horietako gehienetan daude eskolak. Hala, elkarren arteko harremanak bultzatzeko asmoz eta aldi berean, kirol praktika sustatzeko, Gipuzkoako eskola txikien koordinakuntzak kirol topaketak antolatzen ditu urtero.

Atzokoan eskualdeko 12 eskole-tako 211 ikaslek hartu zuten parte. Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Lizartza eta Zizurkilgoak. Hauekin batera, Gabiria eta Itxasondokoak ere izan ziren.

3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleak ziren denak eta hainbat jokutan hartu zuten parte. Honetarako bigune osatu zituzten Berazubiko estadioan: erreleboena eta bestelako kirolena. Lehendabiziko gunean, lokotsak biltzen, zaku lasterketetan, eta hesiak saltzen. Gainontzekoak, bitartean, soka tiran, luzera jaurkitan, pisu jaurkitan, uzta jokoan eta soka saltoan ibili ziren.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Mikel.** Lizartzako pakirri. Kalimotxo pixkatekin eozein ganadu manejatzen du honek.



### Urte askoan!

**Ekhi (Alegia).** Gaur 6 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Amezketako Amezta edaritegiko Joan Joxe, Axun eta Joan Joseren partetik, eskerrik beroenak herritar eta bezero guztiei, 23 urte hauetan elkarrekin pasatako une on guztiengatik.



'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO'  
liburua

**Maiatzak 10, larunbata**  
**kartilla eta 1. kupoia**  
**berriarekin**

